

Kudeatutako **ondare osoa % 2 hazi da** 2022an, inbertsio-funtsen merkatuak kudeatzen duen bolumen osoak murrizketak izan dituen testuinguruan

Kutxabank inbertsio funtsetan laugarren taldea da

- **Ondarearen hazkundera harpidetza garbietan oinarritu da, urte osoan zehar sarrera garbietan lehen postuetan mantendu baita**

2023ko urtarrilaren 20an. Kutxabank Taldeak 21.577 milioi euroko langa gainditu zuen abenduaren amaieran **inbertsio funtsetan** kudeatutako ondarean, aurreko urtearekiko **% 2 hazita**, beraz. Bilakaera positibo hau bereziki da deigarria, inbertsio funtsen merkatuak oro har **% 3,6ko jaitsiera** izan baitzuen.

Ondorioz, Kutxabank finantza-sistemako **laugarren taldea** da kudeatutako inbertsio fondoan ondarean, eta horrek bere epe luzeko aurrezkiaren ereduak merkatuan duen posizionamendu ona erakusten du.

Aktiboen igoera **sarrera garbien bilakaeran** oinarritu da. Urtean zehar, Kutxabank Gestión eta Fineco, Kutxabanken Banka Pribatua, inbertsio funtsen merkatuko lehen postuetan mantendu dira **harpidetza garbiei** dagokienez.

Kutxabank Taldearen **saldo berrien harpidetza** garbiak **2.598 milioi** eurotik gorakoak izan dira, 2021ean baino handiagoak. **Kudeaketa delegatuko zorroetako sarrera garbiak** ere hazi egin dira, aurreko urtearekin alderatuta **% 3,2**, guztira **346 milioi** euroko sarrera berriekin. Gainera, zorroetan **aldizkako ekarpenak** finkatzea erabaki duten bezeroen kopurua hazi egin da, gazteen artean bereziki. Deigarriak dira, gainera, neurrirako funtsetan (kudeaketa aktiboa) izaniko sarrera garbiak **% 8,9** igo dira.

Beraz, **sarrera garbietan inbertsio funtsen merkatuko hirugarren** kudeatzailea izanik amaitu zuen urtea Kutxabankek.

Kutxabankek 2022an izan duen beste erronketako bat **errentagarritasun-helburua duten funtsen** gama zabaltzea izan da. Merkatuan harrera ona izan duten lau produktu berri jaulki ditu –Kutxabank Horizonte 15, 16, 17 eta 18–. Errentagarritasun zehatz bat helburu duten funts hauek inbertsoreentzako etekin erakargarriak eskaintzen dituzte.

Fineco, Kutxabanken Banka Pribatuari dagokionez, kudeatutako aktibo osoak **% 6** hazi dira sarrera garbietan 2022an. Errenta aldakorreko eta funts globaleko sarrera garbiak **130 milioi** eurotik gorakoak izan dira, eta harpidetza garbi guztien **% 50** baino gehiago izan

dira. Azpimarratzekoa da programatutako kudeaketa-funtsen bilakaera bikaina, kontserbadoreena zein oldarkorrena, baita kudeaketako aktiboen zorroaren hazkundean izan duten garrantzia ere.